

# Azterketak



Murrizte neurriak,  
lan erreforma,  
bankari finantzaketa,  
etxebizitza eta kontziliazioa

**ELAren Azterketa Bulegoa**

# Non zer

AURKEZPENA .....	3
<b>I. ESPAINIAKO, EAeko ETA NAFARROAKO GOBERNUEN DEFIZIT PUBLIKOA</b>	
<b>MURRIZTEKO HARTU DITUZTEN ERABAKIEI BURUZ .....</b>	<b>4</b>
0. Sarrera .....	4
1. Maiatzaren 20ko 8/2010 errege lege dekretuaren edukiak .....	5
2. Eusko Jaurlaritzak maiatzaren 27an proposatutako murrizte-neurriak .....	7
3. Defizit publikoa murrizteko Nafarroako foru legeari buruz ELAk egindako balorazioa .....	9
4. Iritzia .....	12
<b>II. ERREFORMA LABORALEKO ERREGE LEGE-DEKRETUARI BURUZ (2010eko ekainaren 16koa) .....</b>	<b>14</b>
0. Sarrera .....	14
1. Puntu nagusiak .....	14
2. Ondorioztapenak .....	18
<b>III. GOBERNUAK BANKUEN ESANETARA. KRISIALDI HONETAN FINANTZA SEKTOREARI EMANDAKO LAGUNTZA PUBLIKOEN GAINEKO AZTERLANA .....</b>	<b>20</b>
0. Sarrera .....	20
1. Datu ofizialak .....	20
2. Ondorioztapenak .....	21
3. Proposamenak .....	22
Greziari buruz .....	23
<b>IV. NAFARROAN ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEAREN LEGEA .....</b>	<b>25</b>
0. Sarrera .....	25
1. Azterketa .....	25
2. Iritzia .....	27
3. Proposamenak .....	29
<b>V. ETXEBIZITZAREN ALDEKO EAeko ITUN SOZIALA .....</b>	<b>31</b>
0. Sarrera .....	31
1. Eraikuntza sektoreari laguntzeko ituna .....	31
2. Balorazioa .....	34
<b>VI. FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN DEKRETUA</b>	
<b>ETA MANU HORRETAN AURREIKUSITAKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK</b>	
<b>ONARTZEKO EMANDAKO AGINDUA .....</b>	<b>37</b>
0. Sarrera .....	37
1. Dekretuan eta aginduan jasotakoaldaketa garrantzitsuenak .....	37
2. Dekretuaren eta aginduaren alderdirik kritikagarrienak .....	38
3. Ondorioztapenak .....	42

## AURKEZPENA

Azterketak berezi honetan egun Hego Euskal Herrian ematen ari diren gai ezberdinak aztertuko ditugu. Hauetariko batzuk egungo krisi egoerarekin suertatu dira, eta beste batzuk, ekonomi egoera hau aitzakiatzat hartuz planteatu dira.

Espainiako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuek erabakitako murrizketa neurriak aztertuz hasiko gara, murrizketa sozialez haratago bestelako aukerak badaudela ondorioztatuz. Espainiar gobernuak onarturiko lan erreforma ere landuko dugu. Gizarte arloan eta lan eskubideetan ematen ari diren murrizketa hauek bankaren esku jartzen ari den dirutzarekin kontrajarriko dugu, horren truk ezer eskatzen ez zaiolarik.

2010eko apirilaren 29an onarturiko Nafarroan etxebizitza izateko eskubidearen lege proiektua eta ekainaren 16an sinaturiko Etxebizitzaren aldeko EAeko Itun Soziala ere aztertuko ditugu, etxebizitza eskubidea bigarren planoan uzten dela berriro ere ondorioztatuz.

Azkenik, Familia eta lana bateratzeko Dekretua eta manu horretan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoak onartzeko emandako aginduaren inguruan hausnartuko dugu. Apirilaren 1erako indarrean egon behar ziren arren, ekainaren bukaeran oraindik orain, ez da horrela izan.

Argi dago, gauzak ondo zein txarto joan, politikak beti diseinatzen dira ekonomi elite eta kapitala onuratzeko, gizartearen gehiengoaren kaltetan. Komunikabideen laguntzarekin, gobernuak, beste aukerarik ez balego bezala saltzen dituzten murrizketak, eta are gehiago, aurrerapausoak bailira. Aurrera eramaniko politiken egokitasunaren inguruan hausnartu nahi du txosten honek, eta baita aukera posibleen inguruan ere.

---

## I. ESPAINIAKO, EAĒKO ETA NAFARROAKO GOBERNUĒK DEFIZIT PUBLIKOA MURRIZTEKO HARTU DITUZTEN ERABAKIEI BURUZ

### 0. SARRERA

Joan den maiatzaren 21ean Espainiako Gobernuak Errege Lege Dekretu (ELD) bat onartu zuen, eta berau maiatzaren 24an Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu zen. Dekretuan zehazten ziren aurrez Zapaterok iragarritako gastu murrizketak, batik bat administrazioaren zerbitzuko langileen soldata jaitziera eta gizarte-gastuko hainbat kapituluren murrizketa (funtsean pentsioak, menpekotasun prestazioak eta jaiotzagatiko diru-laguntza).

Erabili den prozedura ikuspuntu demokratikotik kritikatzekoa da. Batetik, iragarritako erabakiak zehazteraino 10 egun luze igaro ziren, horrela gobernuaren asmoen inguruan gizarteari funtsezko informazioa ezkututzen zaiolarik. Bestetik, errege dekretu legearen bideak esan nahi du neurriok aurretik eztabaidarik egin gabe ezartzen direla, ezta parlamentuan ere. Zalantzazkoa da errege lege dekretuaren bidea, berez gai urgenteetarako dena, kasu honetan egokia izatea. Dekretuak jasotzen dituen neurrietatik batek ere ez du hori justifikatzen, are gutxiago batzuk indarrean beranduago sartzen direnean, adibidez pentsioen izoztea, 2011ko urtarrilean aplikatzekoa dena; beraz, Gobernuak ohiko prozeduraren bat erabil zezakeen.

Neurri horiek EAĒn izango duten eragina zehaztu asmoz, Lehendakariak maiatzaren 27an Legebiltzarrean azaldu zuen Eusko Jaurlaritzaren murrizte-plana. Zehaztasun handirik gabeko neurri eta erreformak, Madrilen erabakitakoaren jarraipen zehatza egiten dutenak, eta berriro bi puntutan oinarritu direnak: gizarte-gastua murriztea eta enplegua deuseztatzea.

Bere agerraldian, Patxi Lopezek nabarmendu zuen “krisi larri honi aurre egiteko eta bertatik baldintza hobetan ateratzeko guztiok lagundu behar dugu, guztiok egin behar dugu sakrifizioen bat...” Bada, Lehendakariak ez du zergak aldatzeko inongo proposamen zehatzik egiten, eta are gehiago, argi esaten du euskal esparruan ezin dela neurririk erabaki, kalterako litzatekeelako betiko argudio faltsua erabiliz. Oraindik ere Aldundiek ez dute konpromisorik hartu zerga-politika eredu bati buruz, eta iruzur fiskalari ere ez zaio heltzen. Nabaria da iragarritako neurriekin sakrifizioak betiko taldeoi leporatzen dizkigutela.

---

Nafarroako Gobernuak, PSNren laguntzarekin, sektore publikoan soldata murrizketak aplikatzeko Legea onartu du.

1. MAIATZAREN 20KO 8/2010  
ERREGE LEGE DEKRETUAREN EDUKIAK

Errege lege dekretuko neurririk garrantzitsuenak honakoak dira:

1. *Administrazioaren zerbitzura lanean ari diren beharginen soldata batez beste %5 murriztea*

Ekainaren 1etik aurrera arlo publikoko ordainsariak batez beste %5 murriztuko dira. Hau era progresiboan egingo dute, soldata handiena dutenei gehiago kenduta, baina langileen zati txiki bati besterik ez zaio jaitsierarik ezarriko (lan-kontratudunei, beren lanaldi osoko ordainsaria lanbidearteko gutxieneko soldata bider 1,5 izatera iristen ez bada).

Neurri hau negoziazio kolektiboari eta autogobernuari egindako eraso zuzena da, negoziazio kolektiboaren ondorio den akordio oro baztertu eta erakunde guztiei ezarri arazten baitiete.

2. *Pentsioen gastua murriztea*

Pentsioei dagokienez hiru bidetatik murriztu nahi dute gastua:

- 2011n ez da igoyerarik izango. Gobernuak erabaki du 2011n pentsioak ez direla eguneratuko, hiru taldetakoak salbu: gutxieneko pentsioak, kotizazio gabekoak eta SOVI. Hau oso larria da, kontutan izanik Espainiako estatuan batez beste pentsioa apirilean hileko 776 euro zirela (875 Nafarroan eta 962 EAEn). Beraz, milioika lagunek hilabete bukaeraraino iristeko arazo handiak izan ohi ditu.
- Erretiro partzialeko erregimen iragankorra kentzea (errelebo-kontratua). 2010eko maiatzaren 25etik aurrera (ELD hau indarrean sartzen den eguna) erretiro partziala hartzeko Gizarte-Segurantzako Lege Orokorraren 166. artikuluko baldintzak oso-osorik eskatuko dira (40/2007 legeak dioenaren arabera), hots: 61 urte izatea; enpresan gutxiarik 6 urteko antzinatasuna; 30 urtez kotizatu izana, eta lanaldia gutxienez %25 eta gehienez %75 murriztea.
- Erretiro-pentsioa jasotzeko 15 urte efektiboko kotizazio ezaldia exijitzen duen erregimen iragankorra kentzea. Hau ere maiatzaren 25ean sartzen da indarrean, eta bertan behera

uzten du erretiro pentsio bat jasotzeko eskubidea izateko 5.475 egun efektibo kotizatu izana apurka ezarriko zela zioen xedapen iragankorra (2008ko 4.777 egunetik hasita 2013tik aurrera eskatuko ziren 5.475eraino). Beraz, 2010eko maiatzaren 25etik aurrera 5.475 egunak exijituko dira. Erretiro pentsioa lortzeko aukera zailtzen du honek. Hau gobernuak ez du jendaurrean azaldu, baina izatez pentsioak kalkulatzeko sistemaren erreforma bat da.

### 3. *Menpekotasunari buruzko erabakiak*

Menpekotasunari buruz, legea aldatu egiten da diru-laguntzei buruz: aurrerantzean eskaria egiten denetik administrazioak ebazpena eman arte gehienez 6 hilabeteko epea igaroko da (orain ez dago halako eperik), baina benetan gastua bi bidetatik murrizten da:

- Diru-laguntzak atzera eraginez soilik 6 hilabete horietatik aurrera ordainduko dira. Beraz, lehen sei hiletako atzera eragineko ordainik ez da gehiago egingo.
- Senideak zaintzeagatik ematen diren diru-laguntzak (hauek dira kasu gehienak), atzeratuta badaude, epeka ordaindu ahal izango dira, ordaina onartu zenetik gehienez bost urteko epean eta urtero kopuru bera izango delarik.

Menpekotasun egoeran daudenen bizkarretik aurrezteko modua da hau, gizarteko talderik ahulenetako baten bizkarretik, alegia.

### 4. *Jaiotzagatiko neurriak (zergak eta gizarte-segurantza)*

Espainiako Gobernuak zerga-araudia aldatu egin du haurra jaiotzean edo adoptatzean ematen diren kenketak gutxitzeko, baina honek HEHan ez du eraginik, arau propioak baitaude.

Aitzitik, eragin zuzena du guregan haur-txekea kentzeak (aldi bakarrean ematen den 2.500 euroko diru-laguntza). Erabaki hau behin betikoa izango da, eta etorkizunean desagertzea dakar; 2011ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

### 5. *Tokiko erakundeei buruzko neurri ekonomiko-finantzarioak eta gastu publikoa kontrolatzeko beste erabaki batzuk*

Gobernuak aipatu ez zituen beste neurri batzuk, baina lege dekretuan jasota daudenak, beste herri-administrazio batzuei eragiten diete (autonomi-erkidego zein udalak). Besteak beste:

- Soldatak murriztuta aurrezten duten dirua udalek ezin izango dute beste gastu batzuetara bideratu, Espainiako gobernuak aipatzen dituenetara izan ezik.
- Tokiko erakundeek ezin izango dute 2011n epe luzeko mailegu publiko zein pribaturik hartu beren inbertsioak finantzatzeko, zenbait salbuespen gorabehera.
- Gastu publikoaren gaineko kontrol berri bat ezarriko da, aldez aurretik bete beharrekoa- Ekonomia eta Ogasun ministerioak arlo publiko eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak egiteko baimena eman beharko du, baita 12 milioitik gorako herrilanetarako kontratuetan ere. Kontrol hau beste kasu batzuetan ere ezarriko da.

## 2. EUSKO JAURLARITZAK MAIATZAREN 27AN PROPOSATUTAKO MURRIZTE-NEURRIAK

Patxi Lopez Lehendakariak maiatzaren 27an aurkeztu zituen Legebiltzarrean Eusko Jaurlaritzak krisi ekonomikoari aurre egiteko hartu nahi dituen erabakiak eta erreformak. Honakoak dira funtsean:

### 1. Arlo publikoan soldatak eta enplegua murriztea

Soldata-masaren %5 aurreztu nahi dute, hots, 87 milioi euro inguru.

%5 hori iristeko administrazioan lan egiten dutenen soldata murriztuko da, baina ez dute datu zehatzik ematen (hitzez-hitz esaten da “2010rako iragarri den soldata-murrizketa aplikatuko da, gure autogobernuaren berezitasuna aintzat hartuta, Gobernu zentralak emandako arauak eragindako soldata-kontzeptuetan, betiere betebeharrekoak direnean eta progresibitatea aplikatuz”.

Halaber, arlo publikoaren zerbitzutan dauden gainerako langileei ere (batez ere enpresa publikoetakoei) langile publikoei eskatzen zaien ahalegin bera ezarriko zaiela. Hori, Espainiako gobernuaren lege dekretuak kolektibo hori murrizketatik salbuetsita jartzen duen arren.

Soldata murrizteaz gainera ordainsarien guztirako kopurua gutxitzeko helburua lortzeko beste neurri batzuk proposatzen dituzte:

- Erretiroak utzitako 166 lanpostu huts eta azken 12 hiletan bete ez diren beste 138 lanpostu amortizatzea (beharrezko ez direla jotzen delako).

- Metatutako zereginen ondorioz hartzen diren langileen kontratazioa %8 murriztea; ordezkapenak egiteko kontratazioa %8 jaitea, eta laneko absentismoa %1 murriztea.

Aipatzen denez, horrekin guztiarekin %5eko aurrezkia lortuko ez balitz beste erabaki batzuk hartuko lituzkete.

2011n administrazioko kargu publiko eta langile guztien soldata izoztu egingo da.

## 2. *Gizarte-gastua murriztea*

Hainbat asmo eta neurriren bidez gizarte-gastua murriztu nahi dute. Abiapuntua oso larria da, bai baitirudi onartu egiten dela inondik ere frogatu gabeko tesi bat, hots, arlo publikoa pribatua bezain produktiboa ez dela dioen leloa; honela ate guztiak zabaltzen dizkiote zerbitzu publikoekin negozio egiteko aukerari.

Osasun arloan besteak beste sisteman zerbitzu berriak ematen hastea eragotzi nahi dute (hainbat gaixotasunentzako sendabide berriak, adibidez), edota pentsiodunek errezeta bakoitzeko ordain bat egin beharra (zehaztasun handirik eman gabe).

Izoztu egin nahi dituzte ere seme-alabengatik ematen diren laguntzak eta garapenerako lankidetzak, datozen bi urteetan. Gainera, familia-planaren ondorioz egitekoak ziren aurrerapenak geldiarazi egin nahi dituzte.

Zerbitzu sozialetan argi esaten dute gizarte-zerbitzuen legeak zeukan garapen motel eta eskasa are gehiago geldotuko dutela. Ez dute besterik zehazten, baina duela 6 hilabete amaitu zen gizarte zerbitzuen legeak jasotzen zuen Zerbitzuen Kartera erabakitzeko epea (hor jaso beharko lirateke herritarrek zerbitzu horiekiko dituzten eskubideak, orain arte ez baita halako eskubiderik aitortzen).

Murrizte sozial larri hauek plazaratu ahala (beste batzuk ere aplikatzen ari dira osasungintzan eta irakaskuntzan: larunbatetan anbulatorioak ixtea, ikasgeletako ratio gero eta altuagoak), beste gauza batzuetarako dirua badago, eta ez dira beharrezkoak; aitzitik, batzuk kaltegarriak. Hain zuzen, Patxi Lopezek esan duenez “2010eko aurrekontuetan jasotako inbertsio guztiak mantenduko dira, batik bat euskal Yaren Gipuzkoako tartean”.

Beraz, hainbat neurri aipatu dute, horietako asko oso generikoak eta zenbateko eragin ekonomikoa duten zehazten ez dutenak, soldatetan nolabait izan ezik, ez baita zehazten administrazioko



langileen soldatetatik zenbateko portzentajea kenduko den. Honi dagokionez ere argi geratzen da Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna: gastua gutxitzea, betikoon bizkarretik, eta benetako eztabaida, diru-sarrerei buruzkoa, saihestea.

### 3. DEFIZIT PUBLIKOA MURRIZTEKO NAFARROAKO FORU LEGEARI BURUZ ELAK EGINDAKO BALORAZIOA

#### 1. Aurrekariak

Espainiako Gobernuak administrazioarentzat diharduten langileen soldata gutxitzeko eta gizarte-gastu batzuk murrizteko emandako dekretuaren ostean, Nafarroako Gobernuak defizit publikoa murrizteko legea onartu beharra justifikatu du.

Legea, ordea, bere politika neoliberallean beste urrats bat ematea besterik ez da. Azken urteetan, gastu publikoa eta, beraz, Administrazioak ekonomian duen pisua urritzeko hainbat erabaki hartu dituzte. Era horretako erabakiek gizartearen babesgabetasun handiagoa eta sektore pribatuarentzako negozio-esparru zabalagoa eragin dituzte.

Gastu publikoak pisua galdu du azken urteetan onartutako aurrekontuetan. 2009ko aurrekontuak, zehazki, gastuaren %6,8ko gutxipen nominala aurreikusten zuen: BPGd-aren 2,15 puntukoa, alegia. 2010eko aurrekontuak ildo politiko berari jarraitzen dio, praktikan gastua izoztea planteatzen du eta. Termino nominaletan, %0,1 gehiagoko gastua jaso zen aurrekontuetan, berez BPGd-arekiko inolako aldakuntzarik ez dakarrena.

Gainera, aurtengo martxoaren 30ean, Nafarroako Gobernuak, PSNrekin batera, %2,3ko aurrekontu-murrizketa (hots, aurrekontuaren %97,7 gauzatzea) erabaki zuen; horrek esan nahi du 100,9 milioi euro utziko direla gastatu gabe.

#### 2. Defizit publikoa murrizteko Foru Legea

Ekainaren 7an, Nafarroako Gobernuak “Defizit publikoa murrizteko hartutako neurri bereziak Nafarroako Foru Erkidegorako moldatzeko Foru Lege Proiektua” igorri zion Parlamentuari. Lege horren xede nagusia, azkenean UPN eta PSNren botoekin onartua, Espainiako Gobernuak sektore publikoko langileei ezarritako soldata-murrizketa Nafarroara ekartzea da.

Hasteko, Foru Lege honek funtzio publikoaren mahai orokorrean itundu zuten %0,3ko soldata-igoera jasotzen du, eta, berori kalkulaturakoan, ordainsarien murrizketari ekiten dio.

Soldaten murrizketa orokorra 2010eko ekainaren 1eko eraginez egingo da, eta urteko terminotan, %5 gutxituko ditu ordainsariak. Horretarako taxutu den eskalak gero eta murrizketa-portzentaje handiagoa ezartzen du, taulako mailetan gora egin ahala.

**Sektore publikoan diharduten langileen soldata murrizketa. Nafarroa**

Taulako maila	Gutxipen-ehunekoa
A	%6,70
B	%4,86
C	%3,54
D	%1,38
E	%0,24

*Iturria: Nafarroako Gobernua*

Gutxipen-sistema hasierako soldatari eta horren gaineko portzentaje gisa kalkulatu diren ordainsari-kontzeptuei aplikatzen zaie.

Hala ere, lanpostu bakoitzari dagozkion soldata-osagarriari (bai eta lanpostu-mailagatik eta jaieguneko edo gaueko lanagatik jasotzen diren osagarriari eta beste edozein ordainsari-kontzeptu aldakorri ere) %5eko murrizketa aplikatuko zaie, taulako maila edo langilearen diru-sarrerak edozein direla ere.

Enpresa eta fundazio publikoetako langileei dagokienez ere, baldintza berberetan xedatzen da soldata-murrizketa, baina legearen testua nahita da anbigua; izan ere, horren arabera, kasu guztietan, hitzarmen kolektibo aplikagarrietan itundutakoa errespetatuz gauzatuko da xedatutakoa, nahiz eta hori, berez, kontraesana den.

Legeak aurreikusten duenaren arabera, itunpeko ikastexentzako finantzaketa murriztu egingo da, bertan diharduten langileen soldata finantzatzeko xedea duten moduluei dagokienez. "Itunpeko irakaskuntza-sektoreko hezkuntzaren kalitatea eta lan-baldintzak hobetuz joateko akordioek" diotenaren arabera, irakasle funtzionarioen ordainsaria oinarritzko soldataren eta berariazko osagarriaren %95ekoa izango da; beraz, hori

murrizten denean, itunpeko zentroetako langileen ordainsariak ere urrituko dira.

Kotizazio-oinarriei dagokienez, 2010eko maiatzekoak iraunaraziko dira, horien ondorengoak handiagoak izan ezean.

Legeak Gobernuko kideentzat (%15ekoa), Zuzendari Nagusientzat (%8koa) eta zuzendaritza-taldeko kideentzat (%7 eta %12 artekoa, horien ordainsarien arabera) ere xedatzen du murrizketa.

Halaber, soldaten murrizketa ez ezik, toki-erakundeen jardun-ahalmena mugatzen ere saiatzen da. Alde batetik, langileen soldata-murrizketaren ondoriozko soberakina zertarako erabili behar den ezartzen du Legeak. Zehazki, honako xede hauetara zuzendu beharko da soldata-murrizketaz aurrezten den dirua:

- a) Azken likidazioko diruzaintza-geldikin negatiboak saneatzera.
- b) Epe luzerako zorra urritzera.
- c) Inbertsioak finantzatzera.

Horrez gain, Nafarroako Gobernuak iragazki berri bat ezartzen dio toki-erakundeen inbertsioari, Azpiegitura Planekin eta Toki Inbertsioekin loturiko inbertsioetarakoak ez diren kredituak hitzartzeko, Toki Administrazioaren Sailaren baimena lortu beharra xedatzean. Eta aipatutako egitasmoekin loturiko ekintzetarako, derrigorrez igaro beharko da sail horrek proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa egiaztatzeko izapidea.

Foru Lege honen memorian, 2010erako neurri horien eraginez, 26 milioi euro gutxiagoko gastua aurreikusten da, honela banandurik:

#### **Legean xedatutako neurrien eragin ekonomikoa**

Ordainsarien %0,3ko gehikuntza orokorra	- 1,4 milioi euro
Ordainsarien murrizketa orokorra	+ 27,4 milioi euro
2010ean, guztira	+ 26 milioi euro

*Iturria: Nafarroako Gobernuak*

---

#### 4. IRITZIA

ELAk Zapateroren errege lege dekretua, Patxi Lopezen plana eta Nafarroako legea arbuiaatu egiten ditu, honako arrazoiengatik:

Neurri hauek arbuiaatzeko arrazoiak honokoak dira:

- Neurri antisozialak ezartzen ditu. Gertatzen ari denaren ardurarik ez duten taldeei ordainarazi nahi dielako krisia: pentsiodunak, familiak eta arlo publikoko langileak. Ekonomiako eta finantzetako botereek eskatzen duten politika da hau; gobernuak men egiten die.
- Autogobernuari eraso egiten dio. Espainiako gobernuak Hego Euskal Herriko erakundeei ezarri nahi dizkie bere erabakiak, administrazioko langileen soldatei buruz zein tokiko erakundeen gastu publikoari dagokionez. Euskal arlo publikoan negoziazio kolektiboak dituen aukerak galarazten ditu horrela.

Erabakiok itxuratzen duten prozesua beharrezkoa denaren kontrako bidetik doa. 2010erako onartu ziren aurrekontuak, estatu mailan zein HEHn, oso murriztuak ziren, gizarte-gastuaren kalterako. Aurrekontuok are gehiago murrizten ari dira gai sozialetan. Murrizketez gainera, prozesua osatzeko erreforma laborala, negoziazio kolektiboaren erreforma eta pentsioena etorriko dira, baita aurrekontu murrizketa gehiago ere.

Honela, krisiari ematen ari zaien irtenbideak atzeraldia areagotu egingo du, langabezia gehitu eta babesgabe daudenak kaltetu. Espainiako gobernuak aitortzen du BPGa aurten eta datorren urtean gutxiago haziko dela, murrizketen ondorioz, eta horrek enpleguari kalte egingo diola. Jaurlaritza bide beretik doa, eta zuzenean enplegua murriztu nahi du, hots, langabezia gehitzekotan da. Irtenbidea bidegabea eta okerra da, gastua gehitu beharko bailitzateke (batez ere arlo sozialekoa), enplegua sortuko duen hazkunde ekonomikoa bultzatuta. Nafarroako Gobernuaren ere bide berdinetik doa.

Defizita gutxitze aldera gastua murriztea erabateko hankasartzea da:

- Defizit publikoa batez beste europarraren gainetik dago, baina ez gastu publikoa handiagoa delako (aitzitik, askoz txikiagoa da, batik bat gizarte-gastuari dagokionez). Gabezia horrek beste zergati bat du: HEHan eta Espainian zerga bidez biltzen den diru kopurua askoz urriagoa da (BPGko 9,3 puntu inguru 2008ko azken datuen arabera). Europaren
-

---

pareko zergak ezarriz gero, defizitaren ordeztu superabita legoke, eta gizarte-gastua gehitzeko moduan egongo ginateke. Horrenbestez, lehenik diru-sarrerak gehitu behar dira, iruzur fiskalari aurre egin eta azken urteetako zerga-erreformatan atzera eginez.

- Gastu publikoaren zati handi bat oso eztabaidagarria da. Adibidez, Espainiako gobernuak finantza-sistemaren esku jarri dituen 61.000 milioiak, edota beharrezko ez diren eta ingurumenari kalte egiten dioten azpiegituretan xahutzen den dirutza (AHT edota Pasaiako kanpo portua, esaterako). Gastua murriztu nahi izatekotan beste arlo batzuk ere uki litezke, ez gobernuak erabakitako hauek.

Erabakiok ez daukate zerikusirik ez elkartasunarekin, ez arduraz jokatzearekin. Hitzok itxurak egiteko argudio hutsak dira, eta eurekin hartzen dituzten erabakiak moztu nahi dituzte; erakundeen benetako borondatea ere estali nahi dute: herritar gehienei kalte egitea, botere eta aberastasun handiena dutenei mesede egiteko.

---

## II. ERREFORMA LABORALEKO ERREGE LEGE-DEKRETUARI BURUZ (2010EKO EKAINAREN 16KOA)

### 0. SARRERA

Espainiako gobernuak ekainaren 16an onartu zuen erreforma laboreko Errege Lege-Dekretua. Hau aztertzen hasi orduko gogoeta batzuk egin beharrean gaude:

- Egin den elkarrizketa sozialaren prozesua onartu ezinekoa da. Elkarrizketa prozesua ilunpeko zerbeit izan da, ezkutuan egin dena, betiere herritarrek benetan eztabaidatu denaz informaziorik izan ez zezaten. Prozesuaren helburua, gizartea desmobilizatzea, haren emaitza jakina zelarik: lan-eskubideak murrizteko erreforma bat.
- Gobernuak eztabaida demokratiko, politiko eta soziala saihestu nahi du. Gobernu espainiarrak Errege Lege-Dekretua parlamentuan ekainaren 22an berrestea nahi du. Honela, arlo publikoko soldatak murriztu eta pentsioak izozteko egin zuen moduan, salbuespenezko bidea behar lukeena hautatzen du, errege lege-dekretua, erabaki batzuk berehala eta eztabaida politiko eta sozialik gabe aplikatu ahal izateko, funtsezko gai batean, lan-eskubideen erregulazioan alegia. Honek ere agerian uzten du gobernu honen kutsu demokratiko eskasa.
- Erreforma hau aurrerago legegai gisa tramitatzeak ekainaren 16ko testua are gehiago gaiztotuko du. Salatu egin behar da lan-eskubideekin horrela jokatzeko, salgai bilakatu baitituzte. Badirudi lehia batean sartu direla, eskubide gehien nork murrizten duen, horrela elite ekonomiko eta finantzarioen bedeinkapena lortzeko. Deitoratzekoa da langileen bizkarretik honela jokatzeko.

### 1. PUNTU NAGUSIAK

Gobernuak onartu duen Errege Lege-Dekretuaren osagai nagusiak hauek dira:

#### *1. Kaleratzea, errazago eta merkeago*

Errege Lege-Dekretuak kaleratzea are gehiago erraztu eta merkatzen du, hiru bidetatik:

---

- Orain arte bidegabekoak ziren kaleratzeak bidezko bihurtu. Kaleratze objektibo bidezkoaren kalte-ordaina urteko 20 egun dira, eta gehienez 12 hilabete adina. Bidegabekoa (justifikaziorik gabea) librea da, baina ez debaldekoa (urteko 45 egun, gehienez 42 hilabete adina). Kaleratzeak objektibotzat jotzeko aukera zabaldu egiten da. Idazkera berriak aukera gehiago ematen du kaleratzeak egiteko, zio ekonomiko zein tekniko, antolakuntzako edo produktiboak direla ere. Gainera zio horiek justifikatzerakoan enpresen betebeharrak txikiagoak dira. Aski izango dute “justifikatzea kaleratzeko erabakia arrazoizkoa dela uste izateko gutxieneko zantzu bat”.
- Kaleratze objektiboa aurrez iragartzeko epea 30 egunetik 15era murriztuko da.
- Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratua (KFSK) hedatzea, ohiko kontratu mugagabea gutxiago erabil dadin. Honekiko puntu berririk nagusiena, KFSK aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko erabili ahal izango dela, baita 30 eta 45 urte bitarteko gizonetako kontratatze ere (oso salbuespen txikiekin). Honela, aurrerantzean ohiko kontratu finkoa hau litzateke, ez orain arte erabili dena. Zein da desberdintasuna? KFSKren kalte-ordaina, kaleratzea bidegabekoa denean, urteko 33 egun dira (orain arteko kontratu finkoaren 45 egunen orde), gehienez 24 hilabete adina (42, orain arteko kontratu finkoarekin). Gainera, enpresentzako hobariak izango ditu.

2. *Negoiazio kolektiboari egindako erasoa, enpresei erraztu egiten baitzaie hitzarmeneko baina soldata txikiagoa ordaintzea, eta sustatu egiten baita laneko baldintzetan funtsezko aldaketak hitzartu gabe egitea.*

Erreforma atzerakada handia da negoziazio kolektiboaren balioari dagokionez; helburua argia da, enpresak erabakitako lan-malgutasuna areagotzea.

1994ko erreforma laboralak soldata-erregimena ez aplikatzeko klausula ekarri zuen; horrela sortu zen alderdiak adostuz gero hitzarmena soldatei dagokienez ez betetzeko aukera. Orain beste urrats bat urrunago joan nahi dute: hitzarmeneko gutxieneko edukia izango baitira “soldata-erregimena ez aplikatzea negoziatzerakoan sor daitezkeen desadostasunak benetan

konpontzeko prozedurak...". Horrela behartzen da soldata-erregimena ez aplikatzea.

Gainera, asmoa da, enpresaren eta ordezkari sindikalen artean adostasunik ez dagoenean enpresentzat lan-baldintzen funtsezko aldaketak egitea errazagoa izan dadin. Horretarako alda daitezkeen puntuen artean "ordutegia eta lanaldiaren banaketa" sartzen dute (orain arte "ordutegia" aipatzen zen soilik; aurrerantzean lanaldi erregularretik irregularrera aldatzeko aukera errazten da, baita aurrez hitzartutako lanaldiaren banaketa irregularra ere). Bai aldaketa hauek egiteko, bai soldata-erregimena ez aplikatzeko, "hitzarmen kolektiboan edo lanbidearteko akordioan ezarritako bitartekaritza prozeduretara jo beharko da. Hitzarmenek eta lanbidearteko akordioek bitartekaritzarekin adostasunik lortzen ez denerako ezarri ahal izango dute aurretiazko konpromiso bat, bete beharreko arbitratzea onartzea..."

### 3. *Kaleratzeak egiteko diru-laguntzak*

Kaleratzea beste bide batetik ere merkatuko dute. Zapateroren gobernuak onartu duenez, aurrerantzean kontratu mugagabe bat sinatzen duten langileen kaleratzea diruz lagundu nahi du. Horretarako Fogasak urteko 8 egun ordainduko ditu kontratu mugagabe berrien bidezko kaleratzeetan. Honela, hemendik aurrera enpresak kontratu mugagabea duten langileak kaleratzen dituenean, objektiboak badira, 12 eguneko kalte-ordaina emango du; kaleratze objektiboa askoz errazagoa izango da.

Baina hortaz gainera, 'langileentzako kapitalizazio funtsa' eratuko dela iragarri dute (enpresek kotizazio sozial gehiago ordaindu beharrik gabe); nola arautuko den ez dute argitu. Funts hori enpresak kaleratzean ordaindu beharreko kalte-ordaina gutxitzeko erabiliko da.

### 4. *Irabazi asmoko enplegu-agentzia pribatuen sarrera eta ABLEen jarduera esparrua zabaltzea*

Azken urteotan enplegu-bitartekaritza gero eta gehiago negozio bihurtzeko urratsak eman dira. Enplegu-zerbitzu publikoen monopolioa baztertuta, hainbat entitate sortu da prestakuntza eta enplegu-bitartekaritzarekin dirua irabazteko asmoz.

Erreformarekin norabide horretan harago doa Gobernuak, irabazi asmoko enplegu-agentzien jarduna onartzen bilatu. Legeak aldatu egiten dira (besteak beste, Enpleguaren Legea) eta esparru



guztietan parte hartuko duten entitate lankide bihurtzen dira. Adibidez, langabeek entitate hauetatik egiten zaizkien eskariak aintzat hartu beharko dituzte, eta berriro gogoratu nahi dugu dirua irabazteko sortu direla.

Bestalde, ABLEei buruzko EBko zuzentarauaren transposizioa baliatzen da haiei jarduteko esparru berriak irekitzeko, batik bat bi bidetatik:

- Orain arte galarazita zeuzkaten sektoreetan. ABLEek soilik oso kasu gutxi eta jakinetan ezin izango dute sartu. “Lanbidearteko negoziazio kolektiboak edota eraikuntza jardueretako zein aire zabaleko edo lurpeko meatzaritzako estatu mailako sektore negoziazioak” mugatu ahal izango du langileak enpresen esku jartzea “2010eko abenduaren 31 baino lehenago”. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, ABLEek jardun ahal izango dute negoziazio kolektiboan ezarritako mugak aintzat hartuz, gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituztela.
- Xedapen gehigarri batek dioenez, “bertan behera geratzen da ABLEek langileak uzteko kontratuak egiteko egun indarrean dagoen muga edota debeku oro”. Honela eragin legalik gabe uzten dituzte legean eta gainontzeko sektore edo enpresetako negoziazio kolektiboan ABLEen jarduera mugatzeko edo galarazteko egon zitezkeen puntuak.

5. *Prozedura kolektiboetan (enplegua erregulatzeako espedienteak, EEE) arrazoi ekonomikoen ondorioz kontratua eten eta lanaldia murrizteko aukera erraztea*

Kontratua zio ekonomikoak medio eten daiteke... (Langileen Estatutuko -LE- 47. art.). Prozedura iraungipen kolektiboa da, baina aurrerantzean kasu guztietan aplikatu ahal izango da, plantilaren tamaina eta eragindako langileen kopurua edozein dela ere.

Erreformaren ondorioz, lanaldia ere murriztu ahal izango da (orain arte LEko 47. artikuluan ez zegoen halakorik). Murriztea %10 eta %70 bitartekoa izan liteke, oinarritzat eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldia hartuta; bere horretan jarraitzeko ez dago gehieneko eperik.

Enpresentzako hobaria handitzen da (%50etik %80ra), baina langabezia-babesa ez da hobetzen, formula hau aukeratu behar duen langilearen kaltetan doan arren. Hobaria handitzeko eragindako langileei prestakuntza eman behar zaie. Prestakuntzak garrantzi handia hartzen du Gobernuaren testu guztian.

## 6. *Ustezko helburuak: Aldi baterako kontratuak gutxitzea eta kontratu mugagabea sustatzea*

Erreformatik mugatu egiten du obra edo zerbitzuko kontratua erabiltzeko aukera, eta aldi baterako kontratuak bata bestearen ondoren lotzea eragotzi nahi du, baina kontuotan legea baino areago arazoa beste bat da, aldi baterako kontratuetan egiten den iruzurra; horrenbestez, oso zalantzazkoa da neurriok zinezko aurrerapenik ekarriko ote duten.

Obra-kontratua amaitzerakoan jasotzen den kalte-ordaina gehitzea -lan egindako urteko 8tik 12 egunera- mailaka ezarriko da: egungo 8 egunen ordez 9 izango dira 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta urtero egun bat gehituko da; beraz, 12 egunera ez da 2015era arte iritsiko.

## 7. *Gazte eta langabeentzako enpleguaren inguruko neurriak*

Orain arteko irizpideei eutsiko zaie:

- Kuota hobariak kontratu mugagabeetan
- Kuota hobariak prestakuntza kontratuetan
- Babestutako kontingentzien artean langabezia sartzen da

Gainera, prestakuntza kontratuetan aurrerantzean ere lehen urteko soldata lanbidearteko gutxieneko soldata (LGS) baino txikiagoa izan daiteke, hitzarmenean besterik finkatuta ez badago. Bigarren urtean LGS pareraino "hobetuko" da. Bestalde, ezarrita zegoen adin muga (16 eta 21 urte bitartekoak) 25 urteraino zabaltzen da behin-behinean (2011-12-31ra arte).

Praktikatako kontratuak titulua lortu ondorengo bost urteetan izango dira posible (orain arte, lau urte).

## 2. ONDORIOZTAPENAK

Gobernuaren Errege Lege-Dekretuak zer dakar:

- Eskubide laboralentzako atzerakada larria. Aurreko atalean egindako azterketaren ondorioa da hau. Gainera, antza, parlamentuko tramitearen emaitza are okerragoa izango da.
- Negoziazio kolektiboaren eta lan-harremanen mamiaren kontrako erasoak. Erreformatik negoziatzeko kolektiboa ahuldu egiten du, bere xedea baita enpresaburuei funtsezko gaietan -soldata, lan-baldintzak- hitzarmenak aintzat ez hartzeko aukera ematea.

- 
- Krisia baliatzea enpresaburuen boterea areagotzeko. Erreformak krisi ekonomikoa baliatu nahi du lan-harremanetako indar-erlazioa ugazaben aldera makurtzeko; horrela alderik ahulena, langilea, are okerrago geratzen da.
  - Lan-kostuen murrizketa. Onartutako neurriekin enpresen lan-kostuak jaitsi egingo dira, eta kalitatezko enplegua langile prekarioekin ordezkatzeko errazagoa izango da.
  - Botereek -ekonomia, finantza eta hedabideetakoek- etengabe plazaratu izan dituzten eskariak asetzea. Hankaz gora jarri dute errealitatea, politika kapitalaren esanetara baitago, eta baztertu egiten dituzte justizia soziala bermatzen duten politikak, beharrezko eta egingarri direnak.

Aurrez etorri ziren beste erreforma guztien bide beretik doa hau ere. Oraingon, ostera ere, bi aitzakia erabiltzen dituzte, biak ere faltsuak, izan ere:

- Erreforma laboralak ez du enplegurik sortuko. Herritarrei sinetsarazi nahi diete erreforma laboralak enplegua sortuko duela. Baina aurreko erreforma batek ere ez du halakorik lortu, eta honek ere ez. Aitzitik, ondorio argi bat izango du: kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izatea.
- Erreformak ez du prekarietatea gutxituko. Beste erreforma guztietako argudioa izan da aldi baterako enplegu tasa jaistea. Baina prekarietatea etengabe gehitu da, eta erreforma hau aurrekoen tankerakoa da; ez da sinesgarria bestelako eraginik izango duenik. Izatez erreformak enplegua dutenen lan-baldintzak okertuko ditu, eta ondorioz prekarietatea askoz handiagoa izango da. Aldi baterako kontratuak gutxitzeko dagoen iruzurrari ekin behar zaio, baina administrazioa ez dago hau egiteko prest.

---

### III. GOBERNUAK BANKUEN ESANETARA. KRISIALDI HONETAN FINANTZA SEKTOREARI EMANDAKO LAGUNTZA PUBLIKOEN GAINEKO AZTERLANA

#### 0. SARRERA

Europako Batzordeak berriki eman zituen argitara Europar Batasuneko gobernuek krisialdi honetan banku-sektorearentzat onartu dituzten diru-transferentzien gaineko datuak. Datuok argi uzten dute gobernuek ez dutela inolako eragozpenik izan aurrekontu publikotik diru-kopuru itzelak ateratzeko, bankuen beharrak asetzeari begira.

#### 1. DATU OFIZIALAK

Batzordearen analisiak adierazten duenaren arabera, 2009ko esku-hartze publikoa hainbat neurri onartzean funtsatu da eta, neurri horien ondorioz, 3,7 bilioi euro eman zaizkio 27 estatuk osatutako Europar Batasuneko (27-EBko) banku-sektoreari. Zenbateko hori Batasuneko BPGd-aren %31,4 beste da (alegia, Europar Batasun osoan iaz sortutako aberastasunaren %31,4 adina). Espainiako gobernua 230.000 milioi euroko diru-laguntzak onartu ditu, hau da, BPGd-aren %21,9 besteko baliokoak.

Egia da oraindik ez dela esleitutako diru guztia erabili, baina beraren zati handi bat bai, gainerakoa etorkizunean erabiltzeko utzi delarik. Zehazki, 27-EBn jadanik emandako zenbatekoa 1,5 bilioi eurokoa da, bertako BPGd-aren %12,7 beste, hain zuzen ere. Diru-kopuru horren ideia egiteko, esan dezagun:

- Bankuek, dagoeneko, 3.000 euroko transferentzia jaso dutela, Batasuneko biztanle bakoitzeko.
- Osasuneko eta hezkuntzako gastu publiko osoaren antzekoa dela.
- Alemanian eta Espainiako Estatuan administrazio guztiek 2009an egindako gastu publiko osoa bezainbatekoa dela.

Gainera, onartutako mugara arteko diru guztia ematen bazaie, dagoeneko erabili den zenbatekoa 2,5ekin biderkatuko litzateke.

Tokian tokiko aberastasunaren arabera neurtuta, diru-transferentziarik handienak honako herrialde hauetan egin dira: Irlandan (BPGd-aren %174 beste), Belgikan (BPGd-aren %30,7), Erresuma Batuan (BPGd-aren %28,4) eta Holandan (BPGd-aren %20,3). Dena den, beste herrialde batzuetan ere izan dira

---

garrantzitsuak emandako zenbatekoak; adibidez: Espainiako estatuan (BPGd-aren %5,8 beste) edo Grezian (BPGd-aren %4,7).

**Banku sektoreko esku hartze publikoa 2009an.  
Europar Batasuna eta Espainiako Estataua.  
Milioi eurotan eta BPGd %.**

	27-Europar Batasuna	Espainiako Estataua
Onartua (€)	3,7 bilioi euro	230.000 milioi
Onartua (BPGd %)	31,4% PIB	BPGd-aren %21,9
Emandakoa (€)	1,5 bilioi euro	61.000 milioi
Emandakoa (BPGd %)	BPGd-aren %12,7	BPGd-aren %5,8

*Iturria: Europako Batzordea*

## 2. ONDORIOZTAPENAK

1. Europar Batasuneko gobernuek bankuei dirutza eskergak ematea erabaki dute (3,7 bilioi euro ematea onartu da, eta horietatik dagoeneko 1,5 bilioi erabili dira), nahiz eta banku-sektorea oraingo krisi ekonomikoaren eragile nagusietako bat den.
2. Gobernuak itzelezko dirutzak ematen ari zaizkie bankuei, musu truk eman ere. Ziurrenik, historia osoan sektore publikotik egin den aberastasun-transferentziarik handiena da oraingo hau.
3. Hala eta guztiz ere, ez da ezta urrats bat ere eman gehiegikeriak eta finantza-espekulazioa galarazteko, eta kreditu-politikari ez zaio baldintzarik jarri. Hortaz, diru hori zuloak tapatzeko erabili da, kreditua handitzeko baliatu beharrean.
4. Datuok agerian uzten dute gobernuak ugazaberiaren eta finantza-erakundearen esanetara daudela, eta nahi beste diru ematen diete, atal horretan aurrekontu-murrizketak egin beharra argudiatu gabe.
5. Erabateko informazio eza dago, aberastasunaren birbanaketa egin beharko litzatekeenaren kontrako norabidean egiten ari dela ezkutatzeko.
6. Bankuei ematen ari zaizkien dirutzak gizarte-babesean gastatu beharko liriateke (gizarte-prestazioetan, osasunean, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan, etxebizitzan,...).

7. Bankuei emandako dirutza itzelak dira gobernuak defizita eta zor publikoa handitzera bultzatu dituzten arrazoirik garrantzitsuenetako bat.
8. Defizita eta krisiaren ondorioak arintzeko, gizarte-gastuaren murrizketak, lan-eskubideen murrizketak eta soldaten doikuntza gehiago inposatu nahi dizkigute. Modu horretan, ekonomiaren atzeraldia larriagotu egiten da, enplegu gehiago suntsitzen da eta gizarte-eskubideak narriatu egiten dira. Eta bien bitartean, diru gehiago ematen zaie bankuei.
9. Horrela, gobernuak, desoreka gero eta handiagoak eta oraingo krisia ekarri dizkiguten politikak aldatu beharrean, azken urteetan baliatutako politika neoliberalaren bide berean jarraitzeko asmoz dabilta, ugazaberiarekin eta bankarekin bat eginik.
10. Kalifikazio-agentzia deiturikoei eman zaien eginkizunak interes ekonomikoen esku uzten du gobernuen jarduna baloratzeko zeregina. Onartu ezinezko pribatizazioa da hori. Agentzia horiek oso kalifikazio ona eman zieten gerora "aktibo toxikotzat" hartu direnetako gehientsuei, baina, hala ere, ez da agentziotan inolako aldaketarik egin. Egitate horrek nahikoa izan beharko luke agentzia horiek desagerrarazteko. Gobernuek, aitzitik, enpresa horien esanetara jarraitzea aukeratzen dute.

### 3. PROPOSAMENAK

Oraingo krisialditik bidezko eran irteteko, eta etorkizunean berriro arrazoi berberengatik beste krisirik gertatu ez dadin, politika publikoak goitik behera aldatu behar dira: finantza-merkatuak arautu, espekulazioa galarazteko; lan-baldintzak hobetu; zerga bidezkoagoak ezarri, eta gastu publikoa gizarte-premiak estaltzera bideratu. ELAk proposamen asko egin ditu, behin eta berriz, aipatutako arlo horietan.

Dei egiten diegu langileei eta gizarte osoari maila guztietako gobernuak ezartzen ari zaizkigun politiken kontra azaltzeko (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Foru Aldundiek ere ezartzen dituzte politika horiek). Gizartearen mobilizazioari ezinbesteko deritzo ELAk, aldarrikatzen ari garen eredu-aldaketa lortze aldera.

Greziako krisia esan zaiona oso erakusgarri argia da. Greziako defizit publikoa Europako batez bestekoa baino handiagoa da. Hori ez da bertako gastu publiko handiaren ondorioa (gastu publikoa Europar Batasuneko batez bestekoaren antzekoa baita), Europako Erkidegoko batez bestekoa baino askoz presio fiskal txikiagoa izatearen ondorioa baizik. Hala eta guztiz ere, finantza eta ekonomia arloetako botereek espekulazio-eragiketa handi bat garatu dute, herrialde horretan prozedurarik ultrakontserbadoreenak ezar daitezzen lortzekotan.

Kalifikazio-agentziek parte hartu dute diseinu horretan. Eta Europar Batasuneko gobernuak, hori onartu ez ezik, besteak beste, antidemokratikoak direlako laidoztatu diren egiturazko doikuntzako planen sustatzaile nagusia izatea erabaki dute. Horrela, gobernuok inoizko politikarik antisozialenak ezar ditzan exijitu diote Greziakoari, Nazioarteko Diru Funtsarekin batera: gastuaren murrizketa zorrotza, funtzionarioen kopurua murriztea, soldatak urritzeta, lan-baldintzen eta pentsioen erreforma ezin larriagoak eta, horrekin guztiarekin batera, bankuei diru gehiago ematea.

Plana sustatzen dutenek eurek esan dute jadanik modu horretan Greziako krisi ekonomikoa larriagotu egingo dela (BPGd-aren eraispenaz), eta langabezia areagotu. Hau da, badakite horrela Grezia hondamendira doala. Sami Näir-ek dioenez, atzeraldia, langabezia eta soldaten deflazioa hautatu dituzte, krisialdik irteteari begira, suspertzea, enplegu-sorrera masiborako estrategia keynesiarra eta hazkuntza konpartituan oinarrituriko politika europar solidarioa abian jartzeko aukera bide-bazterrean utzirik.

Greziako gobernuak, bestalde, banku-sektoreari BPGd-aren %4,7 ematea erabaki zuen 2009an, eta horrek, jakina, defizit handiagoa ekarri die. Bada, defizita gutxitzekotan, langileak estutzea da aginte politikoak, ekonomikoak eta finantzarioak ezartzen duten formula, krisia eragin dutenek lasai-lasai segitu dezaten, doikuntza drakoniarrik jasan gabe.

Europari kiratsa dario. Sistema ekonomikoak eta sistema politikoak ez dute ez eztabaida, ez parte-hartze demokratikorik nahi. Biztanleen beldurraz baliatzen dira bestela ezinezkoak liratekeen murrizketak ezartzeko. Eredu hau guztia aldatzea exijitu beharrean gaude. Sindikalismoaren zeregina gertatzen ari dena

salatzea eta mobilizaziora deitzea da. Borrokatzea edo gudua  
galtzea; horiexek dira aukerak.

---



### 0. SARRERA

Agintzen dutenen ideologia egiten dituzten politiketan islatzen da. Hain zuzen, etxebizitza politikak espekulazio-merkatu bat sortu du; honekin herritarren gutxiengoa aberasten da, eta gainera gizartearen zati handi baten beharrianak ez dira asetzen.

Arazo hauen aurrean onartu zuen Nafarroako Legebiltzarrak, 2010eko apirilaren 29an, etxebizitza izateko eskubidearen forulegegaiaren proiektua, UPN, PSN eta CDNren aldeko bozekin. Baina beronetan etxebizitza ez du inondik ere eskubide gisa hartzen, ez etxebizitza lortzeko bermerik ematen; aitzitik, aurreko politikaren jarraipena finkatzen da, eta Administrazioari egiteko bakarra egotzen zaio, etxebizitza kopuru eskas baten kudeatzaile hutsa izatea. Agiri honetan lege hori aztertzearekin batera etxebizitzari buruzko zenbait ondorio eta proposamen plazaratuko dugu.

### 1. AZTERKETA

Nafarroan etxebizitza izateko eskubidearen legearekin etxebizitza babestuen araudia aldatu nahi dute, hauei buruzko erregimen juridikoa eta esleitzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen direlarik.

Lege-testu berriaren helburuak batik bat etxebizitza babestuak eraikitzea, lurzorua lortu eta urbanizatzea, zaharberritzea eta alokatzea dira. Beraz, testu honek etxebizitza babestuak nola esleitzen diren arautzen du, alokatu edo erosita, baita zaharberritzeko laguntzak ere.

Legearen asmoa da oro har etxebizitza babestuen erregimena hogeita hamar urtez indarrean egotea.

Alokatzeari buruz legeak dio etxebizitza hutsak errentan hartzeko bidea sustatuko duela. Gainera, administrazioak etxebizitza hutsak merkatuko prezioan hartu eta prezio babestutan berraloka ditzakeela ere esaten du, prezioen arteko aldea bere gain hartzen duelarik.

Testu honek badu berritasunik: babespeko etxebizitza motak gutxitu nahi dituzte. Orain arte lau ziren (erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak, erregimen bereziko babes ofizialeko

---

etxebizitzak, prezio finkatua duten etxebizitzak eta hitzartutako prezioa duten etxebizitzak), eta lege berriarekin bi besterik ez izatea da asmoa: babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio finkatukoak; lehenak merkeagoak lirateke (araudi batek zehaztuko du etxebizitza zein motakoa izango den).

Etxebizitzen ezaugarriei dagokionez, legeak irizpideak finkatzen ditu, saltzeko gehienezko azalerari eta prezioari dagokionez:

- Azalera ez da aldatu lehengo etxebizitzaren lege nafarrarekiko. Babes ofizialeko etxebizitzek 90 metro koadro edo gutxiago izango dute, edota 120 familia ugarientzako badira. Prezio finkatuko etxebizitzek 120 metro koadro edo gutxiago izango dute, edota 140, familia ugarientzako badira.
- Aurreko araudiak prezioaz dagokion hitzarmena aipatzen zuen, baina oraingo legeak dio saltzeko edo errentan emateko gehienezko prezioa urtero eguneratuko diren moduluen arabera izango dela. Modulu hauek etxebizitzaren metro koadroak duen prezioa adieraziko dute.

Beste atal bat ere aldatu dute, hain zuzen etxebizitza babestura eskubidea izango duten pertsonak hautatzeko sistema. Testu honek etxebizitza babestuaren errenta-erregimena era berezian taxutzen du: lehentasuna ematen die gazteei, lan egonkorrik ez dutenei, errenta-maila edota baldintza sozioekonomiko jakin batzuetan daudenei. Bestalde, etxebizitzaren jabe izateko lehentasuna ematen zaie lan egonkorra eta antzinasuna dutenei, eta nolabaiteko segurtasun zein ahalmen ekonomikoa dutenei.

Hartara, etxebizitza babestuak lortzeko berriazko eskakizunen artean ere aldatu egin dute familiaren gehienezko diru-sarrera haztatuen kopurua. Hauek kalkulatzeko erreferentzia IPREM izango da; orain arte LGS izan ohi zen. Beraz, koadro honetan bildu ditugu orain arteko eta bidean den araudiaren arabera 2010an etxebizitza babestuen zerrendan izena emateko eskubidea izateko familiako gehienezko diru-sarrera haztatuak:

---

---

## Gehienezko familiariko diru-sarrera haztatuak araudiaren arabera

	Lehengo araudia		Etxebizitza izateko Eskubidearen legea	
	Kalkulua	Gehienezko diru-sarrera	Kalkulua	Gehienezko diru-sarrera
VPO	LGS 5,5 bider	3.483,15	IPREM 4,5 bider	2.396,30
VPT	LGS 7,5 bider	4.749,75	IPREM 6,5 bider	3.461,32

*Iturria: Nafarroako Etxebizitzaren Babes Publikorako 8/2004 Foru-Legea,  
Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubidearen Foru-Legea*

Etxebizitza babestu bat lortzeko eskatzen den gutxieneko diru-sarrerari buruz, legeak dio araudiak finkatuko dituela.

Aztertu beharrekoa da ere esleipena hartzen duten pertsonen artean kooperatibak eratzeko aukera ematen duen zuzenketa. Zuzenketa hau behin betiko lege-testuan sartzeko aurkeztu dute. Honen xedea, etxebizitzarekin inongo zerikusirik ez duten erakunde pribatuek kooperatibak eratu ahal izatea da, etxebizitza esleitu zaien pertsonen artean. Sistema honetan sartuko dira laguntza- eta gizarte-erakundeak eta sindikatuak.

## 2. IRITZIA

Legeak herritarrei ez die bermatzen etxebizitza duin eta egokia izateko eskubiderik, bere helburu teoriko nagusia hori izanagatik. Testua oso orokorra da, eta etxebizitzaren eskubidea gutxieneko maila batean bermatzeko beharrezko litzatekeen zehaztasunik ez du. Hain zuzen, lege honetan ez dago etxebizitzaren egoera larria ezertan alda dezakeen edukirik.

Etxebizitza babestua lortzeko beharrezko diru-sarrerei buruz, legeak eskatzaileen gehienezko diru-sarrera maila murriztu egiten du, eta gutxieneko diru-sarrera arautuko dela dio, baina etxebizitza kontseilariak esan du eskatuko diren gutxieneko diru-sarrera horiek gehitu egingo dituztela. Hortaz, neurrian ondorioz etxebizitza babestua izateko aukera duen herritar kopurua txikiagoa izango da.

Legean etxebizitza publiko mota kopurua txikiagoa da, baina oraindik ere bi mota izango dira, babestuak eta prezio finkatua dutenak; lehenak txikiagoak dira, diru-sarrera apalagoak dituzten kolektiboentzat, eta horrek eraikuntza enpresen negozioa erraztu egiten du, baita etxebizitza publikoetan ere. ELA prezio finkatua duen etxebizitza delako figuraren kontra dago, eta ez du onartzen legeak prezioaren arabera etxebizitza publiko tamaina desberdinak

---

arautzerik. Honekiko, ELAk lurzoruaren erabilpen arrazional eta egokia eskatzen du, eta lehenetsi egiten du etxebizitza publiko gehiago eraikitzea, ez gehiago ordaintzen dutenentzako bizileku handiagoak egitea.

Alokatze babestuari dagokionez, lege honek aurreko araudiak baino xehetasun gehiago jasotzen du, eta hori ona da. Halere, lege berri honek ere badu arriskua: alokatzeko baldintzak eta kudeatzeko modua finkatu baina errentan bizitzeko aukera sustatzea asmo huts besterik ez izatea, hori lortzeko ezer xedatzen ez duen heinean.

ELAk oso ondo irizten dio etxebizitza hutsak errentan jartzeko ahaleginari, baina lege honetako formularekin (jabeari merkatu libreko errenta bera eskaintzea) jabeak Gobernu bitartekari izatearen abantaila guztiak baliatzen ditu. Honela, etxebizitza libreen errenta maila bera ematea interes pribatuen aldeko gehiegizko emaitza da. Horrenbestez, hobe litzateke jabeari errenta txikiagoa ordaindu eta hutsik dauden etxebizitza gehiago errentan jar daitezen diruz laguntzea.

Bestalde, nabarmena da UPNk eta PSNk egin nahi duten zuzenketa, esleipena jaso duten pertsonen arteko kooperatibei buruzkoa. Hau oinarriztat hartuta gerta liteke kooperatiba hauek bultzatzen dituzten erakunde pribatuek ez errespetatzea babespeko etxebizitzak banatzeko irizpide eta baldintzak.

Argi geratzen da etxebizitza arautzeko era berri honekin aldaketak badirela, baina ez dutela inondik ere etxebizitza-merkatuaren egitura eraldatuko, eta gizarteko gehiengoarentzat bizileku duin eta egokia lortzeko aukera ez dela erraztuko.

Nafarroan etxebizitza izateko eskubidearen foru-lege honekin aukera bat galtzen da pertsona orori etxebizitza duin eta egokia bermatzeko. Lege berri honekin aldaketaren bat ezarri arren, gai hau arazo bihurtu duten zergatiak ez dira inola ere konpontzen.

Gainera, eskubide sozialekin zerikusia duten politikak ateporalak izan beharko liriateke, eta ez unean-uneko egoera ekonomikoaren menpekoak. Era kontsekuente eta iraunkorrean aplikatu beharko liriateke, ingurumen ekonomikoak gorabeherak izanda ere.

ELAk nabarmendu nahi du Nafarroak ahalmena duela etxebizitza gaitan legeak eta arauak egiteko eta ezartzeko, eta beraz, pertsona guztiei etxebizitza duina izateko aukera erabaki dezakeela.

---

---

### 3. PROPOSAMENAK

#### *a) Eskubidea aitortzea*

Etxebizitza duina izateko dauden arazoak konpondu nahi badira ezinbestekoa da pertsona ororen eskubide subjektiboa bermatzea, eta hau legeak ez du egiten.

Pertsona guztien etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea gauzatzeko beharrezkoak dira eskubide hori bete dadin auzitegietan galdegiteko aukera ematen duten sistemak. Etxebizitarik lortu ezinean dauden pertsonak badira, eta horren zergatia herri-administrazioek ezarri ez dituzten oinarrizko baldintzak dira.

Halaber, beharrezkoa da etxebizitza izateko eskubidearekin batera bermatzea eskatzailearen beharrezkoen arabera izango dela. Ezin dira pertsona guztien beharrak bizileku berdinekin asetu; horregatik, eskatzaile bakoitzaren egoera kontutan izan behar da.

Etxebizitza egokia izan dadin bizitzeko modukoa, ordaingarria eta segurua behar du, hots, bizilekurik gabe ez geratzeko bermea beharrezkoa da, eta azpiegitura zein zerbitzuz hornitua izango dela.

#### *b) Espekulazioari aurre egitea*

Egungo egoeran ezinbestekoa da espekulazioari aurre egitea. Hau dugu etxebizitzaren merkatuko arazorik nagusienetakoa.

Alabaina, etxebizitza izateko eskubidearen foru-legeak hogeita hamar urteko epea ezartzen du babes erregimenerako; beraz, hortik aurrera etxebizitza publikoarekin espekulatzea posible izango da.

Beraz, aurreko legeak ez zuen konpondu espekulazioaren arazoa, eta lege berriak ere ez du konponduko. Horregatik, behar-beharrezkoa da espekulazioa ezinezko izango den esparru bat. ELAren iritziz babes erregimenak ez luke epemuga bat izan behar, laguntza publikoak izan dituen etxebizitza batekin espekulazioa galaraztearren.

Honetarako ezinbestekoa da indarrean dagoen lege-esparrua goitik behera aldatzea, etxebizitza izateko eskubidea eta lurraldearen antolamendu iraunkorra, ingurumena errespetatzen duena, bateratu eta taxutuz. Hain zuzen, esan beharra dago egungo lurralde-arautzearen lehentasuna negozioa eta espekulazioa dela: birkalifikazioen negoziotik hasi eta neurrigabeko eraikuntzaraino.

---

*c) Alokatzeko etxebizitza publikoak*

Gainera, etxebizitza publiko guztiak errentan eskaini beharko lirateke; honek eragotziko luke horiekin egiten den erabilpen espekulatiboa. Ulergaitza da diru publikoaz ordaindutako bizilekuekin negozioa egin ahal izatea.

Gainera, aldian-aldian berrikusitako alokatzeko erregimen batek aukera emango luke eskaintzen diren etxeak eta jendearen beharrianak hobeto uztartzeko. Alegia, etxea esleitzen zaien pertsonen egoera alda daiteke eskuratzen dutenetik aurrera; beharrezkoa izan liteke beharrian berrien arabera beste bizitza bat, edota behar handiagoa duen beste norbaiti ematea.

*d) Esku-hartze publikoa, gastuaren bidez*

Beharrezkoa da etxebizitzako gastu publikoa zeharo gehitzea, esparru honetan dauden beharriaz erantzuna eman ahal izateko; legeak ez dio kontu honi heltzen. Gaur egun etxebizitzarako BPGaren %0,4 besterik ez da bideratzen.

Halaber, etxebizitzako zerga-arintzeak duten pisua aldatu egin behar da, gai honetarako zuzeneko gastu publikoa bikoizteraino iristen baitira; lege hau egiterakoan aukera ona zegoen hau konpontzeko. Zehazki, 2010ko aurrekontuetan etxebizitzako zuzeneko gastua 78 milioi euro dira, eta gastu fiskala, berriz, 162 milioi.

Gainera, gastu fiskal hauen %90,3 (147,2 milioi) jabetzara bideratuko da, eta %9,7 besterik ez (14,8 milioi) alokatzeko etxeetara; honek adierazten du zerga arintzeak jabetza bultzatzen duela, errentako bizilekuen kaltetan.

*e) Etxebizitzari buruzko informazioa*

Harrigarria da gaur egun Nafarroako etxebizitzari buruzko beharriaz eta egoeraren berri ematen duen ikerketa eta argitalpenik ez egotea. Egin den azkena Encuesta de Necesidades y Demanda de Vivienda en Navarra, 2000koa izan da, eta hau are bitxiagoa da, orduetik hona etxebizitza lortu nahi dutenen egoera zenbateraino okertu den kontutan izanik.

---

## V. ETXEBIZITZAREN ALDEKO EAEKO ITUN SOZIALA

### 0. SARRERA

2009ko azaroaren 23an, Eusko Jaurlaritzak harrokeria handiz aurkeztu zuen Etxebizitzaren aldeko EAEko Itun Soziala. Aurkezpenaren ostean, gizartearen parte-hartzeaz egin omen diren lan-mahai batzuk antolatu ziren, eta Etxebizitzaren Aldeko EAEko Itun Soziala dena atera zen beraietatik, 2010eko ekainaren 16an sinatu zena, eta atal honetan aztertuko duguna.

Gizarte-erakunde gehienen parte-hartzeari prozesuaren hasieratik bertatik jarri zitzaion betoa, gutxi batzuei baino ez baitzitzaigun gonbidapena bidali. Hori ez da ELAri prozesu honetan parte ez hartzea erabakiarazi dion arrazoï bakarra, erakunde parte-hartzaileen siglak erabiltzeko asmoa estal zezakeen parte-hartze aizuna zela pentsatu genuelako baizik.

Eta ez ginen oker ibili: prozesuan parte hartu duten gizarte-erakunde gutxien iritziak ez dira aintzat hartu, eta Ituna eraikuntza-sektorearen interesen aldeko keinu argia besterik ez da. Horixe ikusiko dugu, xehetasun gehiagoz, azterlan honetan.

### 1. ERAIKUNTZA SEKTOREARI LAGUNTZEKO ITUNA

Itunaren helburua bistakoa da: egoera ekonomikoak gogor astindutako eraikuntza-sektoreari laguntzea, hain zuzen ere. Izan ere, “eraikuntza-sektorearen egoera larria” argi azaltzen da administrazioak premiaz erantzun beharreko lehentasuna dela: “Merkatu libreko etxebizitzak epe labur edo/eta ertainerako inbertsio-ondasun izateari utzi diolarik, higiezin merkatuan jarduteko jarraibideak aldatu egin dira, eta eraikuntza sektore osoa ekarri du oraingo gelditze-egoera kezagarri”. Iraingarri deritzogu Etxebizitza Sailaren dokumentu batean etxebizitza “inbertsio-ondasun” gisa aipatzeari.

Alabaina, Itunak bigarren maila batean uzten du etxebizitzarekin loturiko benetako arazoa, batez ere gaur egungo krisi-egoeran: etxebizitza bat lortzerik ez duten edo gehiegizko esfortzuz lortzen duten milaka eta milaka pertsonak, hain juxtu. Hortaz, Itunaren testuak eraikuntza-enpresen alde jokatzeko xedeari erreparatzen dio bereziki.

Itunak honako 4 bide nagusi hauek planteatzen ditu, eraikuntza-sektoreari laguntzekotan:

### 1. *Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza*

Administrazioak eraikuntza-enpresei laguntzeko baliatu nahi dituen bide nagusietako bat sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak da, testuan argi azaltzen denez: “Finantza-krisiaren eta aurrekontuak murriztu behar diren eraginpeko abagune honetan, non eraginkortasuna orain artean baino are garrantzitsuagoa den, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzak ezinbesteko formula da, arriskuak eta aukerak konpartitzeari begira”<sup>1</sup>.

Hau da, giza premien kontura sektoreari ondo joan zaion bitartean, ez zaio inolako mugarik jarri, eta orain, hain ondo ez doakionez, lagundu egin behar zaio, “arriskuak eta aukerak” berarekin konpartitzearen.

Itunak honako jardunbide hau ere planteatzen du: “Irabazi asmorik gabeko edo izaera sozialeko erakundeek bultzatutako kooperatibek etxebizitza babestuan parte hartu dezaten erraztea, diru-sarrera txikiak dituzten herritarren eskariei erantzuteko (31. ekintza)<sup>2</sup>. Planteamendu horrek izaera askotako erakundeek ekarriko die eraikuntzaren negozioan parte hartzeko aukera. Ez da inon zehazten, ostera, zer-nolako etxebizitzak eta zer baldintzatan eraiki ahalko diren, ez eta kooperatiba horiek, etxebizitzaren esleipenean, etxebizitza babestuek bete beharreko baremoari jarraitu beharko dioten ala ez. Beraz, erakargarri bezain labainkor izan daiteke bide hori.

Nafarroan ere, hortixe saiatu dira, Etxebizitzarako Eskubideari buruzko Foru Arauaren onarpena aprobetxatuz, baina asmoak ez du aurrera egin, UPNk bere babesa kendu diolako.

Irabazi asmorik gabeko erakundeek negozioari dagokionez, Itunak CCOO eta UGT sindikatuentzako ezkutuko finantzaketa ere planteatzen du: “Sindikatuarekin elkarlanean, etxebizitza babestuen eraikuntzan lan-segurtasuna areagotzea (55. ekintza)”. Ustezko elkarlan horren atzean, ikuskari-lanetan aritzeko ordezkari sindikalen liberazioa dago. ELAk ez du eredu hori onartzen, eta administrazioaren ikuskaritza-eginkizuna sendotzea galdatzen du, bai eta eraikuntza-sektoreko ezbeharren arrazoi nagusiari, hau da, ezegonkortasunari (behin-behineko lanari, azpikontratazioari,...), aurre egitea ere.



## 2. *Eraikuntza-sektorearentzako laguntzak*

Sektore publikoarekiko lankidetzak gutxi ez bazen ere, Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozialak eraikuntza-sektorearentzako zuzeneko laguntzak ere planteatzen ditu, lurzoruen erosketa eta urbanizazioarekin loturik, beraien zabalkundeaz gain<sup>3</sup>.

## 3. *Eraikuntza-sektorearen onuren lege-esparrua berraztertzea*

Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozialak, halaber, eraikuntza-sektorearen etekin-marjina berriz aztertzea ere planteatzen du, lurzorutik ateratzen den errentagarritasunarekin loturiko neurriak programatuz<sup>4</sup>, lurzoruaz orain arte baino etekin handiagoa lortzeko aukera emanez eraikitzaileei.

BOEen sustapenetan ere lurretik lorturiko errentagarritasuna handitzea planteatzera heltzen da Ituna<sup>5</sup>. Horretarako, BOEen urbanizazio kostuak igotzea planteatzen dute, aldatu beharreko elementu zehatzak aipatuz, hala nola, ondorengo prezioak igoz, eraikigarritasuna handituz, edo eta baita, BOEen lur erreserbak aldatuz. Hau da, Itunaren testua lurzoruaren legea aldatzea planteatzera heltzen da, babesturiko etxebizitzari lekua kendu eta libreari emateko, eta horrela eraikuntza sektorea mesedetzeko.

Zalantzarik gabe, etxebizitza babestuen salmenta-prezioa garestitzea ekarriko du horrek, Itunak espresuki jasotzen duena<sup>6</sup>. Hori bai, etxebizitza babestuen prezioa garestitzearen xedea ez da etekin-marjina handiago horrekin alokairurako etxebizitza babestu gehiago eraikitzea, eraikitzaileen poltsikoak betetzea baizik.

Etxebizitza Sailburuordeak lurzoru-erreserben inguruan egindako adierazpenak kezkatzeko modukoak dira, alkateei etxebizitza babesturako lurzoru-erreserbak aldatzeko eta hiri-aprobetxamenduan aldaketak egiteko ahalmena ematekotan dabilta eta. Horrela egitera, udalerrri askotan gerta liteke gaur egun legeak derrigortuta eraiki behar direnak baino etxebizitza babestu gutxiago eraikitzea eta, modu horretan, eraikitzaileek lurzoru beretik etekin handiagoa lortzea. Hori dena, jakina, etxebizitzarako eskubidea areago urratuz.

Eraikuntza-enpresek etxebizitzaren merkatu librean orain arte beste mozkin eskuratzen ez dituztenez, etxebizitza babestuaren merkatutik etekin gehiago lortzeko aukera aurkezten du Eusko Jaurlaritzak. Baina, noren bizkar egingo da hori?

---

#### 4. *Eraikitako eta saldu gabeko etxebizitzak merkatura ateratzea*

Krisialdi ekonomikoa etxe asko astintzen ari delarik, eraikuntza-sektoreak arazoak ditu eraikitako etxebizitzak saltzeko. Ildo horretan, Itunak etxebizitza horietarako irtenbidea aurkitzea planteatzen du<sup>7</sup>. Testuak puntu horren gainean ere ez du xehetasun asko ematen, xede horretarako tresna berriak xedatzeko aukera aipatzen badu ere, baina bidea irekitzen dio alokairu babesturako etxebizitza berriak merkatura ateratzeko aukerari.

Bistan dago planteamendu horren helburu bakarra eraikitzaileek saldu ezin dituzten etxebizitzetarako irtenbidea aurkitzea dela. Larriena, ordea, ez da hori. Izan ere, testuan aipatzen ez den arren, 30.000 euro emango zaizkie eraikuntza-enpresei, aurretiaz, alokairu gisa.

Gainera, etxebizitza berrien alokairu babestua ondoren erosteko aukeraz egin ahal izatea planteatzen dute, orain arte ez bezala<sup>8</sup>. Era horretan, urte gutxi barru, egoera ekonomikoak ahalbidetzen duenean, eraikuntza-enpresek saldu egin ahal izango dituzte etxebizitza horiek. Horixe da, hain zuzen ere, etxebizitza berriak lehenbizi alokairu babestura ateratzeko tarteko urrats horren helburu bakarra.

Eraikitzaileek saldu ezin izan dituzten etxebizitza tasatuei dagokienez, babes ofizialeko etxebizitzak jabeek etxebizitza tasatuak erosteko aukera ematera ere iristen da aurkeztutako planteamendua. Etxebizitzak salmenta errazte aldera maila horretaraino heltzea oso adierazgarria da<sup>9</sup>.

## 2. BALORAZIOA

Itunak ez dakar inolako aurrerapausorik herritar orok etxebizitza izateko duen eskubidearen arauketan. Guztiz ahazten du etxebizitzaren egoera kezkarriaren ondoriozko benetako kaltetuak, batez ere oraingo abagune ekonomikoan, etxebizitzarako oinarrizko eskubideaz gozatu ezin diren herritarrak eta, eskubide hori baliatzeko, gehiegizko esfortzua egin behar dutenak direla. Itun honek argi erakusten du Eusko Jaurlaritzaren lehenbizi eraikuntza-enpresei laguntzea dela. Gogoan izan behar dugu eraikuntza-sektoreak, azken urteetan, itzelezko dirutzak poltsikoratu dituela etxebizitzaren prezioa puztuz. Testu horretan, ez da etxebizitzarako irispidea legez bermatzeko eta eskubide hori auzitegien aurrean galdatu ahal izateko proposamenik ageri.

---

---

Arestian, bankuei milaka milioi eman zaizkie, trukean ezer eskatu barik, eta Itun honetan, bakarrik eraikuntza-sektorearen onura ekarriko duten hainbat neurri proposatzen dira. Eraikuntza-enpresei ez zaie eskatzen etorkizunean euren etekin-marjina murrizterik, etxebizitzarako eskubidea gauzagarriagoa izan dadin. Eraikitzaileei azken urteotako eraikuntza-eredu espekulatzaila aldatzea exijitu beharrean, den-denak berdin jarraitzeko neurriak planteatzen dira, “sektoreari hain kaltegarri suertatzen ari zaion” egoera ekonomikoa ezititzekotan.

Ez dugu ahaztu behar, halaber, sektoreari eman nahi dizkieten laguntzak, lurzoruen errentagarritasuna handiagotzeko formulak abiaraztea, etxebizitza babestuak garestitzea eta abar etxebizitza babestua esleitzen zaien pertsonen bizkar, edo gizarte osoaren kontura, egingo direla.

Oraingo araubidea batere egokia ez delarik, Itunean proposatutako lege-aldaketek atzerago eraman nahi gaituzte. Aldaketa horiek etxebizitza babestu gutxiago eta garestiagoa ekarriko dute, eta biztanleen bermeak ere murriztuko dituzte.

Hortaz, Itunak eraikuntza-sektoreari laguntzeko xede bakar eta eskusiboari erreparatzen dio, eta, “Itun Sozial” baderitzo ere, ez du inolako jite sozialik, gizartearen kontra jotzen duten neurri ugari planteatzen ditu eta.

## OHARRAK

<sup>1</sup> Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzari buruzko aipamen gehiago: "...Alokatzeko etxebizitzak eraikitzeke lankidetzara publiko-pribatua ahalbidetuko duten mekanismoak ezartzea. (79. ekintza)", "Sektore pribatuarekiko hitzarmenen bidez, alokatzeko etxebizitza-parke publikoa kudeatzeko modu berriak aurkitzea (79. ekintza)", "Saltzeko etxebizitzaren sustapenari begira, agente elkarlanaren bidea sendotzea (82. ekintza)".

<sup>2</sup> Hori ez da etxebizitza babestuen eraikuntzan kooperatibismoa bultzatzeari buruz egiten duen aipamen bakarra; hona hemen beste bat: Kooperatiben sektoreak alokairurako etxebizitzaren sustapenean parte hartu dezan errazteko prozedurak antolatzea (22. ekintza).

<sup>3</sup> "Lurzoruen eskuraketa eta urbanizaziorako laguntza publikoak berrikusi (5. ekintza)", "Sustapenerako laguntzei buruz informatzeko komunikazio kanpainak aurrera eramatea (16. ekintza)".

<sup>4</sup> "Lurzoruaren balioa urbanizazio-kargen baliotik bereiztea, oinarrizko moduluen portzentajezko balio bana esleituz (8. ekintza)".

<sup>5</sup> "Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitzea aurreikusita egonik, gaur egun prozesua blokeaturik duten lurzoruak urbanizatu ahal izateko, hirigintza-eragiketarako errentagarri bihurtzeko bideak aurkitu behar dira, urbanizazio-kostuetan BOEari protagonismo handiagoa emanez; adibidez: urbanizatutako lurzoruagatik kobratu daitezkeen prezioak aldatzea; lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legean finkatutako erreserba-estandarrak aldatzea; 11/2008 Legean hirigintza-gainbalioaren erreskaterako xedatutako portzentajea berrikustea; eraikigarritasuna areagotzeko aukera aztertzea (esaterako, azalera erkideak azalera eraikitza ez hartuz),..." (7.ekintza)

<sup>6</sup> "Babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioak benetako eraikuntza-kostuaren arabera moldatzea (17. ekintza)", "Etxebizitza babestuen prezioak zehazteari begira, Berme eta Konpentsazio Fondoetan oinarrituriko eredu aldatzea. Eredu berriak, etxebizitza babestuaren salmantan, erosleen errenta-mailen araberako prezio ezberdinak ezartzeko aukera emango du, familien esfortzu ekonomikoa eta beraien diru-sarrerak bat etor daitezen eta sustapenak autosufiziente eta orekatuak izan daitezen (33. ekintza)".

<sup>7</sup> "Hutsik dauden etxebizitza berri zein erabiliak mobilizatzea, bai dagoeneko abiarazitako programen bidez (Bizigune), bai unean uneko behar eta inguruabarretarako egokiak diren tresna berriak sortuz (23. ekintza)", edo "Agente pribatuekin, euren lurzoruak eta etxebizitzak mobilizatzeko hitzarmenak sustatzea, etxebizitza horiek alokairu babestuaren merkatuan sartu eta sustatu daitezen (81. ekintza)".

<sup>8</sup> "Erosteke aukeraz alokatzeko programa bat abian jartzea. Erosteke aukera erabiltzeko epea, eskualdatze-prezioa eta etxebizitza horien kalifikazio iraunkorrerako tipologia lege-bidez xedatuko dira (32. ekintza)".

<sup>9</sup> "Babes Ofizialeko Etxebizitzaren jabeak etxebizitzarik ez izateko baldintzatik salbuestea, etxebizitza tasatuak erosteko aukera izan dezaten, euren BOEak Administrazioaren eskura jartzen baldin badituzte, betiere. Etxebizitza tasatuak euren jabetzako etxebizitzarik ez duten eskaeragileek okupatzerik egon ez den kasuetan bakarrik emango da aukera hori, ohiko esleipen-prozedurari jarraituz (36. ekintza)".

---

## VI. FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN DEKRETUA ETA MANU HORRETAN AURREIKUSITAKO DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOAK ONARTZEKO EMANDAKO AGINDUA

### 0. SARRERA

Orain arte lana eta familia bateratzeko neurriak arautzen zituen 118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, Familia eta Lana Bateratzeko Dekretuak (aurrerantzean, Dekretua) eta manu horretan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoak onartzeko bide den Aginduak (Agindua, hemendik aurrera) ordeztuko dute aurrerantzean.

Dekretua eta Agindua 2010eko ekainaren 29arte ez dira onartuak izan. Beraz, aurtengo udarako ez dute benetako baliorik izango.

### 1. DEKRETUAN ETA AGINDUAN JASOTAKO ALDAKETA GARRANTZITSUENAK

Bi dira Dekretuan eta Aginduan planteatutako aldaketa nagusiak:

1. Umeak edo menpeko egoeran dauden pertsonak zaintzeko lanaldi murriztua edo eszedentzia hartzeagatik jasotzen diren diru-kopuruak handitzea. Gehikuntza hori handiagoa izango da emakumeentzat, aurrerantzean horiek jasoko dituzten zenbatekoak ez direlako gizonenak baino txikiagoak izango, orain arte ez bezala.

Diru-laguntza handiagoak ematea hobekuntza bada ere, beraien zenbatekoak ez dira oraindik inola ere nahikoak, hurrengo taulan ikusi ahal denez. Beraz, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzea diru-galera nabaria izango da aurrerakoan ere.

Lan Merkatuaren Erroldak soldatei buruz argitaratutako datuen arabera, eszedentziak 14.700<sup>1</sup> euroko batez besteko diru-galera eragingo du, Aginduan xedatutako diru-laguntza jaso arren. Lanaldi-murrizketek, bestalde, 9.000<sup>2</sup> euro inguruko diru-galera eragingo dute urtean, aipatutako diru-laguntza jasotzen bada ere (lanaldiaren %45 murriztuz gero, galera 9.030<sup>3</sup> eurokoa izango da; murrizketa %40koa bada, 8.420<sup>4</sup> eurokoa, eta %33 murrizteak 9.995<sup>5</sup> euroko galera ekarriko du).

## Eszedentziak eta lanaldi murrizketak eragindako diru galera

	Soldata garbia 2007	Eszedentzia		Lanaldiaren murrizketa					
		Laguntza 2010	Diru- galera	Laguntza >%45 2010	Diru- galera 45%	Laguntza %40-45 2010	Diru- galera 40%	Laguntza % 33-40 2010	Diru- galera 33%
Urteko	18.200,7	3.500	-14.700,7	2.800	-9.030,5	2.500	-8.420,4	2.200	-9.994,5
Eguneko	49,9	9,6	-40,3	7,7	-24,7	6,8	-23,1	6,0	-27,4

*Iturriak: Lan Merkatuaren 2007ko Errolda, Familia eta lana bateratzeko Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoak onartzeko bide den Agindua*

2. Diru-laguntzak 59 eguneko gutxienezko aldi etengaberako eskatu beharra kentzea. Eskola-oporraldietan eszedentzia edo lan-murrizketa hartzeagatik diru-laguntzak jasotzeko aukera dela eta, propaganda handia egin da aldaketa horren inguruan. Berez, ordea, diru-laguntza kobratu ahal izateko, aurrerantzean ere eskatu behar izango da gutxienez 59 eguneko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa. Hau da, eskatzaileak 2 hilabeteko eszedentziari edo lanaldi-murrizketari dagokion soldata galtzeko gisan egon beharko du; izan ere, diru-laguntza gorabehera, eguneko galera 40,3 eurokoa izango da, eszedentziaren kasuan, eta 25 bat eurokoa, lanaldi-murrizketarenean (24,7 eurokoa, %45eko lanaldia murriztuz gero; 23,1 eurokoa, %40ko lanaldi-murrizketaz, eta 27,4 eurokoa, %33koaz).

Aipatu berri dugun 59 eguneko baldintzan etenik ezaren eskakizuna kendu arren, Eusko Jaurlaritzak gutxienezko 59 eguneko baldintza hori mantentzearen aldeko hautua egin du, Legeak, berez, ez baitu gutxienezko egun-kopururik exijitzen, eszedentziaren edo lanaldi-murrizketaren zioz. Horrela, Eusko Jaurlaritzak asko murrizten ditu diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko aukerak.

### 2. DEKRETUAREN ETA AGINDUAREN ALDERDIRIK KRITIKAGARRIENAK

Hona hemen Dekretuaren eta Aginduaren hutsunerik garrantzitsuenak:

### 1. *Diru-laguntza urriegiak*

Egiaztatu dugunez, diru-laguntzek oso hein txikian estaltzen dute zaintzarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeak dakarren diru-galera, beraien zenbatekoa urriegia delako.

### 2. *Diru-laguntzak ez dira bermaturiko eskubide*

Aipatutako diru-laguntzak aurrekontu-zuzkidurari loturik daude, eta aurrekontua amaitzeak diru-laguntza gehiago ez egotea ekar lezake. Hau da, diru-laguntza horien inguruan egin den propaganda itzela gorabehera, eurak sortarazi zituen xedea bera ere ez dute ziurtatzen, nahiz eta eskubide unibertsal izan beharko luketen.

### 3. *Emakumeak lan-merkatutik ateratzeko diru-laguntzak dira*

Umeen eta menpeko pertsonen zaintza-premia asetzeko zerbitzurik ezean, Eusko Jaurlaritzak langileak lan-merkatutik irten daitezen sustatu nahi du, zaintza-beharrei biztanleek eurek erantzun diezaieten. Modu horretan, lan-merkatutik irteteko diru-laguntzak dira.

Diru-laguntzak edo lanaldi-murrizketak hartzeak, gainera, kontuan hartu ez diren bestelako ondorio gehiago ere badakartza (gizarte-estaldurak, lanbide-sustapena...), soldatan islatzen direnak ez ezik.

Kulturaz, etxeko zereginen ardura handiena emakumeak jarraitzen du bere gain hartzen, eta lan-merkatuaren errealitateak areagotu egiten du egitate hori. Ondoko taulak argi erakusten du, emakumeen kasuan, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeak dakarren diru-galera txikiagoa dela, beraien batez besteko soldata ere gizezkoena baino urriagoa delako.

Zaintzarako eszedentziari dagokionez, diru-galera 4.316 euro gutxiagokoa da emakumeak hartzen duenean. Gauza bera gertatzen da lanaldi-murrizketen kasuan, aukera hori emakumeak erabiliz gero, diru-galera 2.700 euro inguru gutxiagokoa da eta (2.805 euro txikiagoa, %45eko lanaldi-murrizketa denean; 2.589 euro gutxiagokoa, %40ko murrizketaz, eta 2.892 euro urriagoa, %33ko murrizketaren kasuan).

### Eszedentzien eta lanaldi-murrizketen ziozko diru-galerak, sexua kontuan hartuta. EAE

	Eszedentzia		Lanaldiaren murrizketa						
	Soldata garbia 2007	Laguntza 2010	Diru-galera	Laguntza >%45 2010	Diru-galera 45%	Laguntza %40-45 2010	Diru-galera 40%	Laguntza % 33-40 2010	Diru-galera 33%
Gizon.	19.995,8	3.500	-16.495,8	2.800	-10.197,3	2.500	-9.497,5	2.200	-11.197,2
Emak.	15.680,0	3.500	-12.180,0	2.800	-7.392,0	2.500	-6.908,0	2.200	-8.305,6
O	4.316	0	-4.316	0	-2.805	0	-2.589	0	-2.892

*Iturriak: Lan Merkatuaren 2007ko Errolda, Familia eta Lana bateratzeko Dekretua, eta manu horretan aurreikusitako diru-laguntzen zenbatekoa onartzeko bide den Agindua*

Kulturarekin eta ekonomiarekin loturiko alderdien eraginez, 2008ko ekitaldian mota horretako diru-laguntzak eskuratu eta, beraz, euren bizitza profesionala familiaren beharren menpe jarri dituztenen %94,1 emakumezkoak dira (%97, eszedentzietan, eta %93,4, murrizketetan).

### Eszedentzien eta murrizketen banaketa. EAE, 2008

	Eszedentzia	Lanaldi Murrizketa	Guztira
Emakumezkoak	97	93,4	94,1
Gizonezkoak	3	6,6	5,9

*Iturria: Familiei Laguntzeko 2006-2008 Institutioarteko II. Planari buruzko Bitarteko Ebaluazioa*

#### 4. Zaintza-premiak estaltzeko zerbitzuak ez bultzatzea

Hartutako neurrien xedea, hein handi batean, zerbitzu-gabeziari adabakiak jartzea da, nahiz eta behar besteko zerbitzuak antolatzea izan, hain zuzen ere, bateragarritasun handiena eskaintzen duen bidea. Egoera horrek bai 0 eta 2 urte arteko umeen hezkuntza tartetetan, bai menpekotasun-egoeren estalduran du eragina.

Izan ere, adin txikikoentzako zerbitzuei dagokienez, 2008an, 1 urtetik beherakoentzako tokien estaldura %21ekoa izan zen (%11,7koa sare publikoan eta %9,4koa pribatuan); hortaz, 1 urtetik beherakoen %79k ez zuen tokirik izan. Ildo beretik, 2 urtetik beherakoen estaldura %42,5ekoa izan zen (%21,5ekoa sare publikoan eta %21ekoa pribatuan), adin horretako umeen %57,5 tokirik gabe geratu zelarik.



### 3 urtetik beherako biztanleak eta zentrozen estaldura. EAE, 2008

Adina	Biztanleak		Publikoa		Pribatua		Guztira	
	2007/12/31n	Tokiak	Estaldura	Tokiak	Estaldura	Tokiak	Estaldura	
0 urte	20.595	2.400	%11,7	1.928	%9,4	4.328	%21,0	
Urte 1	20.875	4.484	%21,5	4.394	%21,0	8.878	%42,5	

*Iturriak: Familiei Laguntzeko 2006-2008 Instituzioarteko II. Planari buruzko Bitarteko Ebaluazioa, Eustat*

Adineko pertsonen zaintza-beharren estaldurari gagozkiolarik, "Informe 2008. Las personas mayores en España" izenburuko txostenaren arabera, 2008ko urtealdian, 65 urtetik gora eta eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko ezintasunen bat duten biztanleen %23,3k baino ez zuen gizarte-zerbitzu publikoen edo itunduen estaldura izan. Horrek begien bistan uzten du horrelako ezintasunak dituzten pertsonen estaldura ere gutxiezigkoa dela.

### Gizarte zerbitzu publikoen eta itunduen estaldura indizea (%). EAE, 2008

Etxeko laguntza	Egoitzak	Eguneko zentroak	Etterako janaria	Guztira
14,1	7,3	1,8	0,2	23,3

*Iturria: "Informe 2008. Las personas mayores en España" txostena*

#### 5. Lan-egutegi eta lanaldien eta familien beharren arteko koherentziarik ezari aurre ez egitea

Haurren kasuan, lana eta familia bateragarri egiteko aurkitzen dugun beste oztopo handi bat lan-egutegi eta lanaldien eta ikastetxeetako egutegi eta ordutegien arteko ezberdintasun handia da.

Umeen oporraldiak gurasoenak baino askoz luzeagoak dira, eta egunez egun ere, lanaldiak ere are luzeagoak dira. Horrek ez du lana eta familia arrazoizko eran bateratzeko aukerarik ematen.

Arazo horri, zainketak -iraunkorrak, batzuetan- behar dituzten adineko pertsonentzako gizarte-zerbitzuen estaldura urria gehitzen badiogu, ez dago bateragarritasuna inola ere lortzerik.

Tamalez, gizartearen oraingo antolaketak ezinezko egiten du lana eta familia duintasunez bateratzea. Merkatuaren nagusitasunak bere inguruan birarazten ditu beste arlo guztiak,

---

amaigabeko lanaldiak eta ordutegien zurruntasuna medio, eta ohartu ere ez gara egiten, batzuetan, gure “kontsumo-premien” atzean beste pertsona batzuen bizitza eta denbora uzten ditugula.

### 3. ONDORIOZTAPENAK

Azterlan honetan jorratutako Dekretuak eta Aginduak, funtsean, handitu egiten dituzte zaintzarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko diru-laguntzak, baina bateratasuna lortzeko, diru-laguntzak baino gehiago ere behar da, eta alderdi horri ez Dekretuak eta ez Aginduak ez diote heltzen.

ELAk umeen eta euren kasa ezin moldatu daitezkeen adineko pertsonen zaintza-premien %100eko estaldura bermatzeko moduko zerbitzuak aldarrikatzen ditu, zerbitzuok ezinbestekoak baitira lana eta familia bateratzeari begira.

Horrez gain, zaintzarako eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzea euren borondatez erabakitzen dutenen diru-galera estaltzeko besteko diru-laguntza duinak ere exijitzen ditu.

ELAk, halaber, behar-beharrezko deritzo gizartearen antolaketa aldatzeari, jarduera guztien multzoak (ekonomikoak zein bestelakoak barne hartuta) lana eta familia, norberaren bizitza pertsonala ez ezik, benetan bateragarri egiteko moduko egutegi eta ordutegiak ahalbidetu ditzan.

Finean, berriz planteatu behar da sistema, eta premiaz, merkatua erlatibizatuz eta benetako garrantzia duena lehenetsiz: bizitza, alegia.

---

---

## OHARRAK

<sup>1</sup> 2007ko urtealdiko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera 18.200 eurokoa den batez besteko soldatari 3 urtetik beherako umeak edo minusbaliotasunen bat duten adinekoak zaintzeko lan-eszedentzia hartzeagatik 2010eko apirilaren 1etik aurrera indarrean egon behar zuen 3.500 euroko urteko diru-laguntza kentzearen emaitza.

<sup>2</sup> 2007ko urtealdiko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera 18.200 eurokoa den batez besteko soldatari 3 urtetik beherako umeak edo minusbaliotasunen bat duten adinekoak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzeagatik 2010eko apirilaren 1etik aurrera indarrean egon behar zuten diru-laguntzen batez besteko 9.000 euroko hurbilpena kentzearen emaitza.

<sup>3</sup> 2007ko urtealdiko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera 18.200 eurokoa den batez besteko soldatari 3 urtetik beherako umeak edo minusbaliotasunen bat duten adinekoak zaintzeko %45eko lanaldi-murrizketa hartzeagatik 2010eko apirilaren 1etik aurrera indarrean egon behar zuen 2.800 euroko diru-laguntza kentzearen emaitza.

<sup>4</sup> 2007ko urtealdiko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera 18.200 eurokoa den batez besteko soldatari 3 urtetik beherako umeak edo minusbaliotasunen bat duten adinekoak zaintzeko %40ko lanaldi-murrizketa hartzeagatik 2010eko apirilaren 1etik aurrera indarrean egon behar zuen 2.500 euroko diru-laguntza kentzearen emaitza.

<sup>5</sup> 2007ko urtealdiko Lan Merkatuaren Erroldaren arabera 18.200 eurokoa den batez besteko soldatari 3 urtetik beherako umeak edo minusbaliotasunen bat duten adinekoak zaintzeko %33ko lanaldi-murrizketa hartzeagatik 2010eko apirilaren 1etik aurrera indarrean egon behar zuen 2.200 euroko diru-laguntza kentzearen emaitza.



---

OHARRAK: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

